


## Lana / La obra

Xuela Claudette Richardson, ama karibe baten eta aita erdi eskoziar erdi afrikar baten alaba, amarik gabe hazten da bere aitaren arropa-garbitzaileak zainduta. Bakardadean eta emozio aldetik gabezian hazi arren, sentsualitateari, kolore biziei, lurraren usainei eta zetazko testuei dien atxikimenduaz agertuko du bere burua. Eskolaumea zenean linburturik, amodio pasiozko bat biziko du estibadore batekin, eta mediku ingeles batekin ezkonduko da, zeinaren emaztea, diotenez, Xuelak pozoituta hil baita. Baina Xuelari jakinduria-gosea bihurtuko zaio obsesio. Sekula ikusi gabeko emakumearen zatiak batuz, bere ama imajinatzen du aitaren ezagutza egiten, imajinatzen ditu haren bizitza eta sentipenak, hiltzera doan arraza bateko kide gisa harturik… eta bere burua irudi horren barrenean ikusiko du, arrazari, sexuari eta maitasunari buruzko nobela bikain honetan.

## Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua /Título: **Nire amaren autobiografia**
Egilea / Autor: **Jamaica Kincaid**
Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 153
ISBN / EAN: 978-84-9746-774-2
Salneurria / Precio: 11,90 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / N° páginas: 192
Formatua / Formato: 13 x 19,5 cm

ISBN: 978-84-9746-774-2
9 788497 467742

## Egilea / El autor

**Jamaica Kincaid** Karibeko idazle gailenetariko bat da, Antigua uharteko St. John's hiriburuan jaioa, 1949an. Hemeretzi urterekin Estatu Batuetara joan zen. *The New Yorker* aldizkariko kolaboratzailea izan zen. Besteak beste, liburu hauen egilea da: *At the Bottom of the River* (1983), *Annie John* (1985), *A Small Place* (1988), Lucy (1990), *My Brother* (1997) eta *Mr. Potter* (2002).

ALBERDANIA
erein
igela